

Nori zuzentzen zaien

Vitoria-Gasteizeko ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleei (5. eta 6. mailakoei) eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko (1. eta 2. mailakoei).

Helburuak

- Ikastetxeetan uraren tratamendua sendotzea, eskola horietako jardueren plangintzaren edo curriculum programaren barnean.
- Ur kontsumoa murrizteko, ohitura onak hartzea eta zenbait aldaketa egiteko bultzatzea, kontuan hartuta horrek zer-nolako eraginak dituen bai ingurumenaren eta bai iraunkortasunaren.
- AMVISAko Ingurumen Hezkuntzako jardueren programa sustatzea (Krispiñara, Arakara eta urtegiatara egingo diren bisitak barnean hartuta).
- Ikasgelan tresna informatikoen erabilera indartzea.

Programaren barnean aurreikusten diren jarduketak

1. Uraren erabileraz sentiberatzeko xedea izango duen komiki bat banatzea, MAPRE Fundazioak sortutako **Ekopatruilako** pertsonaiekin; AMVISAk eta Futura Planak erabili dituzten irudien ildoari jarraitzen dio komikiak, eta Vitoria-Gasteizko errealitatera egokitu da. Uraren erabileren sentiberatasunez jokatzeko mezuak helaraziko zaizkie ikasleei, eta hirian uraren kudeaketa nola egiten den hobeki ezagutuko dute horrela.

2. Komikia abiaburutzat hartuta, ikasleak kontzientziako saiok egitea ikasgelan, ingurumenaren esparruko hezitzaileen eskutik.

3. Eskolarteko kartel lehiaketa bat egitea, ikasleak uraren erabilera eraginkorren inguruan sentiberatzeko; ikasleei eta ikastetxeei sariak banatuko zaizkie, eta ondoren, lanik onenak erakusketa batean jarriko dira ikusgai.

Noiz

2011ko otsailaren 1etik apirilaren 15era bitartean.

Sariari buruzko erabakia maiatz-ekain aldean hartuko da, eta erakusketa ere hilabete horietan egingo da.

Jarduketei buruzko xehetasunak

Komikia formatu digitalean aurkeztuko da, ikasgelan modu interaktiboan landu ahal izateko: ikasleei zenbait pantaila aurkeztuko zaizkie irakurketan zehar, erabakiak hartzeko edo kontzeptuak eta edukiak elkarrekin lotzeko; horrela, irakurketa baldintzatu eta, aldi berean, aberastu egingo da.

Paperean ere argitaratuko da komiki osoa (bi eredu, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz), MAPFRE Fundazioak beste udalerriri batzuetan egin duenaren ildotik, ikasle bakoitzak ale bat izan dezan eta etxera eraman dezan.

Ikasgelako lana ingurumenaren arloko hezitzaileek dinamizatuko dute. Saio bakoitza 50-60 minutukoa izango da, eta, komikia abiapuntutzat hartuta, aurreikusitako helburuak landuko dira, elkarrekin edukietan sakonduz eta berrieretan ageri diren mezuak indartzuz.

Kartel lehiaketan, parte-hartzaile bakoitzak bere kartela osatuko du, diseinurako erabiltzen den programa informatiko xume baten bidez; webguneak jarriko dio

eskura programa hori, eta hainbat irudi eta marrazki izango ditu aukeran, bai eta diseinurako hainbat tresna (irudiak mozteko, luzatzeko, txikiagozteko...), eta testuetarako askotariko tipografiak eta koloreak ere. Konposizio lanak e-mailez helaraziko zaizkie antolatzaileei.

Lehiaketako irabazlea erabakitzerakoan, kartelak uraren erabilera eraginkorragoa egitearen aldeko mezua zabaltzen laguntzen duen balioetsiko da, eta oso kontuan hartuko dira bai lan horren sormena eta bai originaltasuna ere.

Ondoren, sariak ekitaldi batean banatuko dira, eta lanik onenak udal aretoaren batean jarriko dira ikusgai.

Proposamen hau garatzeko, ezinbestekoa da ikasgelan edo informatikako gelan ikasle bakoitzak ordenagailua erabiltzeko aukera izatea, hala, komikia lantzeko eta kartel lehiaketako diseinu programa eskuratzeko (bi modutara egin daiteke, web bidez nahiz aurrez ikastetxeko ekipoetan materialak instalatuz).

Gai hauen inguruan kontzientzia hartzeko saiokak egiteko interesa izanez gero eta ikasgelan ekipo informatikoak erabili ezin badira, laneko dinamika ikastetxeko errealitatera egokitu daiteke, betiere, antolatzaileei aurrez horren berri emanez gero.

Ikastetxeen parte-hartzea

Ikastetxeek programa honetan parte hartzeko hainbat maila dituzte aukeran, baina, programak xede dituen mailetako batean bederen, bere osotasunean lantzeko aholkua eman nahi diegu.

Komikia paperean ikastetxe guztiei banatuko zaie, otsailaren 1a baino lehen beraien adierazitako hizkuntzan; hizkuntzarik aukeratzen ez bada, erdiak euskaraz emango dira, eta beste erdiak gaztelaniaz.

Ikasgelan kontzientziatze saio hauek egin nahi dituzten ikastetxeen eskariak ere otsailaren 1era arte jasoko dira, eta saio egunak ikastetxe bakoitzarekin banan-banan zehaztuko dira. Zenbat saio egingo diren eta zein talde edo mailari zuzentzen zaizkien adierazi beharko dute, bai eta zer hizkuntzatan egin nahi duten ere. Ikastetxe horiei egun horretan bertan banatuko zaizkie komikiak paperean, eta gainerakoetan, otsailaren banatuko dira.

Kartel lehiaketan, hainbat modutara har daiteke parte: ikasleek banaka parte har dezakete, edo ikastetxeak edo ikastaldeak ere parte har dezakete. Ikasleen kasuan, ikasle bakoitzak kartel bakarra aurkeztu ahal izango du, eta bigarren kasuan, berriz, bost kartel aurkez ditzakete ikasgelako. Kartela diseinatzeako aplikazio informatikoa otsailaren 1etik apirilaren 15era bitartean erabil dezakete, eta horixe da, hain zuzen, lanak bidaltzeko azken eguna.

Lehiaketarako oinarriak parte hartuko duten ikastetxe guztiei banatuko zaizkie, eta programari buruzko informazio orokorrekin batera eskuragarri jarriko dira, Futura Planaren helbidean: www.amvisa.org/futura.

Harremanetarako datuak eta informazioa

Programan parte hartzeko asmoa dutenek AMVISAren Futura Planeko teknikariekin jarri behar dute harremanetan:

Futura Planaren bulegoa:

Zapatari kalea, 40 beheka
Telefonoa: 945 252138
E-maila: info@futura plana.org
www.amvisa.org/futura



“Vitoria-Gasteizen, urak axola digu”

ingurumenaren arloan, uraren balioaz kontzientzia hartzeko Vitoria-Gasteizko ikastetxeei zuzentzen zaien programa

Ondorengo orri hauetan, ikasleei 2010-2011 ikasturtean ingurumenaren arloan kontzientzia hartzen laguntzeko programaren ezaugarriak dituzue; AMVISA etxeak kudeatzen eta finantzatzen duen Futura Planaren esparruan, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumen Sailak eta MAPRE Fundazioak sinatutako hitzamenari esker garatu ahal izan da programa.

FUNDACIÓN MAPFRE



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala